



ZESTOAKO UDALA

## AKTA

2020ko maiatzaren 28an Udal Batzarrak buruturiko ohiko saioari dagokiona.

Zestoan, bi mila eta hogeiko maiatzaren hogeita zortzian, arratsaldeko zortzietan, **Mikel Arregi Urrutia** jauna mahaiburu delarik, korporakide hauek biltzen dira: **Nerea Odriozola Larrañaga, Beatriz Zubia Arambarri, Ruben Alberdi Uranga, Aitor Salegi Martija eta Pilar Perurena Larrañaga** EH BILDU Udal taldeko zinegotziak eta **Garikoitz Mendizabal Etxeberría, Eva Mangas Beobide, Karmel Bedita Mendizabal Irigoien, Katixa Monreal Cuesta eta Javier Manteca Martin** EAJ-PNV Udal taldeko zinegotziak.

Idazkari lanetan, Korporazioan jarduten duena, **Ander Cestona Unanue** jauna.

Alkateak ongi etorria eman ondoren gai zerrendari ekin dio

### **1.- 2020KO MARTXOAREN 25EKO UDAL BAZTARREKO AKTA ONARTZEA BIDEZKOA BALITZ.-**

Ez da aldaketarako inongo proposamenik aurkeztu, beraz, 2020ko martxoaren 25ean buruturiko saioaren akta bere horretan onartu da aho batez.

### **2.- UDAL FORU FUNTSAREN MURRIZKETAREN INGURUKO MOZIOA.**

Alkateak adierazi du, GFAk erabaki bat hartu duela Covid19aren ondorioz etorriko den krisiak dirubilketa gutxituko duela ikusirik. Alde bakarreko erabakiz foru fondoa %20an gutxitu duela esan du. Udal gehienak 2020ko aurrekontuan onartuta dituztela, gastu eta inbertsioak. Zestoaren kasuan 2020an 541.000,00 euro suposatzen du. Negoziaketa bat egon dela adierazi du, baina jada agortu dela.

Alderdi desberdinetako berrogeita sei alkatek eskaera egin dutela gehitu du, eskutitz bat bidaliaz.

Ondorioz, mozio hau aurkeztu duela dio, eztabaidatu eta onartzeko.

Alkateak irakurri du mozioa eta honela dio:

### **“UDAL FORU FUNTSAREN MURRIZKETAREN INGURUKO MOZIOA**

*Maiatzaren 14an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen Gipuzkoako Foru Aldundiak udalei egiten dien diru ekarpenean % 20ko murrizketa aplikatzeko Diputatu Kontseiluaren aldekarreko erabakia. Horrelako erabakiei buruz hitz egiteko alde aurretik bildua beharko zukeen Gipuzkoako Finantzen Kontseilua hurrengo egunean bildu zen, eta dagoeneko hartuta zegoen erabakiaren berri emateko besterik ez zen izan.*

*Udalak, herritarren beharretatik gertuen dauden erakundeak izateaz gain, lehen mailako erakundeak dira, Udal Legeak aitortzen duen bezala. Zentzu honetan, euskal erakundeen*



## ZESTOAKO UDALA

*arteko diru banaketan aldaketarik egon behar bada, erakunde guztien artean eztabaidatua eta adostua izan behar luke, aldeek informazioa modu gardenean partekatu ondoren eta ez orain erabaki den bezala, hau da, aldeekin hitzik egin gabe eta aldebakarrez.*

*Zerbitzu publikoak garatzeko ezinbestekoa den finantzazioaz ari gara hizketan, udalen eguneroko kudeaketan eta herritarren bizitzan eragin zuzena duten erabaki politikoez. Horregatik, Zestoako Udalak ondorengo eskariak egiten dizkio Gipuzkoako Foru Aldundiari:*

- 1. UFFFren inguruan elkarriketaren aldeko apustu irmoa egitea.*
- 2. Berraztertu dezala aldebakarrez hartutako erabakia eta udalekin elkarlanean adostasun bat bilatu dezala udalen egonkortasun finantzarioa ere helburu izango duena.*
- 3. Elkarlana inoiz baino beharrezkoagoa dela sinetsita gaudenez, udalekin elkar gobernantza foro bihur dezala Gipuzkoako Finantzen Kontseilua. Bertan informazioa partekatu dadila, proposamenak aztertu eta adostasunak lortu daitezela, ondoren Gipuzkoako udalen finantzaketari buruzko Foru Arauan beharrezko isla izan dezaten.*

*Zestoako Udalak erabaki honen berri emango dio Gipuzkoako Aldundiko Diputatu Nagusiari, Ogasun Diputatuari, Gipuzkoako Batzar Nagusietako alderdi guztiei eta EUDELeko Gipuzkoako eta EAEko zuzendaritzei.*

*Zestoan, 2020ko maiatzaren 22an”*

Ondoren, bertaratutako korporazioa osatzen duten hamaika zinegotzietatik bertaratutako hamaikatik aldeko sei zinegotzien adostasunarekin, eta bost zinegotzien abstentzio botoarekin, mozioa onartu egin da.

### **3.- COVID-19AREN BAITAKOAK.**

Momentu honetan 2. faserako bidean gara eta osasun ikuspegitik datak onak dira, Zestoan, Urola erdian eta Gipuzkoan. Fase aldaketarekin gauza batzuk baimenduta daude, baina protokolo zorrotzak ezartzen dira: liburutegian, liburuak desinfektatu. Ekainaren batean, kultur agenda martxan jartzea erabaki da, era baldintzatuan. Liburutegia irekiko da, orain ere liburuak hartzen diren arren. Gauza batzuk mugatu egingo dira, distantziak zainduaz. Kultur etxean, jarduera batzuk martxan zeuden. Musika eskola, antzerki taldea.. telelana egiten ibili dira, beste batzuk entsaiatu gabe egon dira. Asmoa ekainaren batean irekitzea da, jarduera iraunkorra dutenak eta beti ere sarrerako atea itxita mantenduaz. Higiene protokoloa bete beharko da. Protokolo hau lantzen ari da.

Kiroldegia ekainaren zortzian irekiko da. Ekainaren 3an bilduko da kirol mahaia eta bertan azalduko dira protokoloak.



## ZESTOAKO UDALA

Eguneko zentroa itxita izateak, famili askotan arazoak sortu ditu. Egoitzako zuzendariarekin eta GFAn zuzendariarekin hitz egin ondoren, konfirmatu ez duten arren, ekainaren zortzian irekitzea posible dela uste da.

Terrazen egoerari dagokionean eskara batzuk baimendu dira mahai kopurua handituz. Baimen hauek alerta egoerak dirauen bitartekoak dira.

Kiroldegiari dagokionez, kuoten sistema berriarekin lehen urtea da eta zerbitzurik gabe egon diren denboragatik %25eko murrizketa egingo da.

### **4.-ERREGU ETA GALDERAK.-**

Garikoitzek herriko festei buruz galdegin du.

Alkateak, auzokoak ere hor daudela eta EUDELe bidalitako irizpideak aipatu ditu. Hauek irailaren hamabost arteko festei buruzkoak direla adierazi du. Aforoari dagokionean, 250 pertsona arteko ekitaldiak egin ahalko direla adierazi du, baina distantzientzako pertsona bakoitzeko 4m<sup>2</sup>. Erkidegoko hiru hiriburuetakoa bilera bat egin zutela adierazi du eta festak bertan behera uztea erabaki zutela. Inguruko herriak ere bertan behera uzten ari direla. Festak ezagutzen ditugun moduan egitea zaila ikusten duela adierazi du Alkateak.

Pilota eta zezenak antolatzeke aforoarena arazoa dela dio eta momentuz ez dago baldintzarik.

Alkateak adierazi du, Aizarnako eskola txikien festa ere bertan behera utzi dela. Bestalde, Covid 19 merkatari eta ostalaritzako laguntzen deialdia egin ahal izateko ere aurrekontu aldaketa bat egin dela eta zati bat herriko festetatik hartu dela, baina auzoetakoa ez dela ukitu.

Eta gai gehiago ez dagoenez, bukatutzat ematen da saioa arratsaldeko zortziak eta berrogeita hamasei direnean, nik neuk, Idazkariak, ziurtatzen dudalarik.

O. E.  
ALKATEAK,